

## Mondragon Unibertsitateko LEINNeko ikasle batek GAZE proiektuan parte hartuko du EHU eta Tknikarekin batera.

2013/04/16

MU, EHU eta TKNIKA ordezkatzen duten hiru gaztez osaturiko diziplina anitzeko talde batek onartu du, aurren, GAZEn parte hartzeko erronka; Gipuzkoako goi-hezkuntzako gazteen komunitatea ekimenaren zentzuaren eta ekintzailetzaren inguruan sentsibilizatzeraz bideratutako jardueren-programa jarriko dute abian.

GAZE proiektua (GAZTE EKINZALE) 2008an sortu zen gure lurraldeko goi-hezkuntzako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko xedez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Sailak babesten du.

GAZE, gobernantzaren oinarriko printzipioen arabera kudeatu behar zen programa estrategiko gisa hauteman zen hastapenetik. GAZEren gobernantza, programaren ziklo osoan ikasleen partaidetza aktiboa eskatzen du, eta lau dimentsioren inguruan dago ardaztuta: partaidetza, aniztasuna, konpetentziak eta kultura.

Aurtengoan, proiektua gure lurraldean egoitza duten goi-hezkuntzako hiru erakunderen lankidetzarekin garatzen da: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Mondragon Unibertsitatea (MU) eta TKNIKA lanbide heziketarako sarea.

### Gazte aktiboak

Gazte aktiboen erritmoraz mugitzen da GAZE. Gazte horiek, ekitea aurrera emandako pausoa dela uste dute, eta pausoa emateko modu asko daudela.

**Julen Arrizabalaga** (Donostia, 1993) LEINNeko -Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza gradua (Mondragon Unibertsitatea)- ikaslea da Irunen. Donostian bizi da, nahiz eta, une honetan, hiriburutik kilometro askora egon. Lierni Ortizek (Zegama, 1992) Ingeniaritza Zibila ikasten du Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoan (UPV/EHU). Xabier Sanchez, 1990ean jaioa, Pasaiakoa da. Administrazio eta Finantza gradua ari da ikasten Donostiako Zubiri-Manteo (TKNIKA) Institutuan.

Julen, Lierni eta Xabi, esparru, karrera eta prestakuntza-ziklo ezberdinetatik datoz, baina ez dute egitura egonkor bat eratzten. Sarean egiten dute lan, interkonektatuta, osotasun baten zatiak bailiran. "Profil ezberdinak dituzten pertsonak ezagutu eta sare sozial bat osatu nahi dugu, Gipuzkoa ekintzaileagoa irudikatzen den edonorentzat lekua izango duena", diote. Horixe da GAZEren filosofia, izan ere, jarrera partehartzailea eta gobernantza dira haren ezaugarriak. Hala, denbora igaro ahala, gero eta babes gehiago du proiektuak.

Hiru 'Kolabora' hauek gertuagotik ezagutu nahi badituzu, berriki sortu duten blogean sar zaitezke (<http://gaztekintzaile.wordpress.com/>). Bertan, aipatu ikasleen profilak ezagutzeaz gain (ikasketak, zaletasunak, iguripenak, GAZEren batzeko arrazoiak, etab.), programarekin lotutako azken albisteak jarri ditzakezu: aldizkari digitala, mintegiak, hitzaldiak... eta ustekabekoren bat ere bai. Izan ere, denbora batez ikerketan, behaketan eta ikaskuntzan aritu ostean, gazte hauek, inguru hurbilenean (unibertsitatean edo prestakuntza-zikloetan) identifikatu dituzten esperientziak eta praktika onak bistararazteko erronka finkatu dute, betiere, ekimenaren zentzuarekin eta ekintzailetzarekin lotuta.

### Blog berria

Programaren barnean egiten diren jarduerak ikusarazi eta haiekiko sentsibilizazioa pizteko asmoz, aurren, <http://gaztekintzaile.wordpress.com/> bloga ireki dugu. Espazio horretan



aurkituko dituzuen edukiak, GAZEn 'Kolabora' modura parte hartzen duten ikasleek taxutzen dituzte. Ikasle horiek, gainera, proiektuko Idazkaritza Teknikoa osatzen duten profesionalen laguntza dute.

### **Maiatzeko topaketak eta aldizkaria**

Une honetan, GAZEko neska-mutilak "kazetaritza lanetan" murgildurik daude burubelari: harremanak eraiki, elkarrizketak egin, artikulak idatzi... Sortu berri duten bloga elikatu behar dute eta, horrez gain, maiatzean argitaratuko den aldizkari digitalerako edukiak prestatu behar dituzte. Bigarren fase batean, egindako behaketen emaitzak ezagutarazi eta proiektuko lehen fasean jasotako ezagutza besterentzeko xedez, ikasleek topaketa bana antolatuko dute, beren ikasketa-zentroetan gauzatzekoak. Maiatzean garatuko dira topaketa horiek, "ezagutza besterentzeko mintegiak" izenburupean.

### **Ekaineko hitzaldi-mintegia**

Azkenik, praktiketako ikasleek, ekainean burutuko den "instituzio arteko hitzaldimintegi" baten antolaketan parte hartuko dute modu aktiboan. Mintegi horretako gai zerrenda elkarren artean (EHU, MU eta TKNKA) zehaztuko dute, eta gai horietan adituak diren pertsonak parte hartuko dute. Hala, erakusleho itzela izango da ekimenaren zentzuaren sustapenarekin lotutako kasu eta esperientziak agerrarazteko. Horren ondorioz, ideiak proiektu bilakatzeko konpetentziak landuko dira. Halako gaitasunek, zalantzarik gabe, oso harrera ona dute gure gizartean, are gehiago krisialdian eta ikaslearen rola -eta irakaslearena- aldatzen ari den garai batean.

GAZE proiektuak urtero hainbat alternatiba proposatzen ditu Gipuzkoako entitateen arteko lankidetzara indartzera bideratuak, ikasle aktiboak protagonista izango dituen heziketa eredu bat finkatzeko asmoz.

Argibide gehiagorako: Leire Cano. GAZEko Idazkaritza Teknikoa (gaztekinzale@gmail.com) <http://gaztekinzale.wordpress.com/>  
Tfinoa.:943 018395.